

Prentsa oharra

Nota de prensa

Udalak irisgarritasun-sarea handitu du auzoetan, Larratxon eta Antiguan egindako esku-hartzeekin

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Departamentuak Larratxo pasealekuko 26. zenbakiaren ingurua berritu du eta Erregezain gaineko pasabide berri bat eraiki du

Donostiako Udalak hiriko auzoetako irisgarritasun-sarea handituz jarraitzen du, kasu honetan, Larratxon eta Antiguan bi esku-hartze eginda. Biek batera 116.037 euroko inbertsioa dakarte.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zinegotzigoak sustatutako esku-hartzeen helburua arkitektura-oztopoak kentzea, zoladurak berritzea eta oinezkoen segurtasuna eta erosotasuna hobetzea da, batez ere adinekoentzat, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat eta haur-orgak erabiltzen dituzten familientzat.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo Garcíak azpimarratu duenez, "lanean jarraitzen dugu Donostiako irisgarritasun-sarea handitzeko eta hobekuntzak pixkanaka hiriko auzo guztietara irits daitezen lortzeko". "Batzuen ustez, esku-hartze horiek txikiak dira, baina eragin zuzena dute pertsona askoren eguneroko bizitzan. Desnibel bat kentzeak, espaloi bat zabaltzeak edo oinezkoen pasabide bat hobetzeak aukera ematen dute gure auzoak seguruagoak, erosoagoak eta irisgarriagoak izateko", adierazi du zinegotziak.

Larratxo pasealekuko 26. zenbakiaren ingurua berritzea

Lehenengo jarduera Larratxo pasealekuko 26. zenbakiaren atzealdean egin da, zoladura berritzeko dauden kaleen artean dagoen zatian.

Proiektuak inguruko biztanleek egindako eskaerei erantzuten die. Lekua birbanatu eta berrantolatuko da, espaloien, aparkaleku-aldeen eta ibilgailuen zirkulazioaren konfigurazio berrietara egokituz. Esku-hartzeak garrantzi berezia du, Larratxoko adinekoen zentrorako eta «Ostadar» Larratxoko Emakumearen Zentro Soziokulturalerako sarbideak hobetuko baititu.

Lanen barruan, espaloietako eta aparkatzeko guneetako zoladurak berritu dira, eta egungo hirigintza-oztopoak kendu eta hobetu dira. Horretarako, baldosa eta aglomeratuzko egungo zoladura altxatu eta eraitsi da, dauden harrizko zintarriak kendu eta berreskuratuta dira eta espaloien eta galtzadaren oinarriak berritu dira. Ondoren, berreskuratutako zintarriak berriro jarri dira, hormigoizko areka berri bat eraiki da eta Donostia / motako zoladura berria jartzeko

Prentsa oharra

Nota de prensa



beharrezkoak diren zagor eta hormigoi geruzak zabaldu dira. Jarduera amaitzeko, seinale horizontalak berritu dira. Esku-hartze hori gauzatzeko aurrekontua 95.603 eurokoa da.

"Obra honen bidez, auzo-eskaera bati erantzuten diogu, eta auzoan asko erabiltzen diren bi gizarte-ekipamenduren irisgarritasuna hobetzen dugu. Gure helburua da edozein pertsonak aukera izatea autonomiaz eta segurtasunez mugitzeko eta zerbitzu publikoetara iristeko", azaldu du Garcíak.

Gaineko pasabide bat, Erregezaintza kalean

Beste esku-hartzea Erregezaintza kalean egin da, 47. zenbakiaren inguruan, Antigua auzoan. Oinezkoen pasabideak ez zuen jangune egokirik, eta desnibel handia zegoen zintarriaren eta arekaren artean. Gainera, aldeak hainbat irregulartasun zituen, eta ez zuen arauzko baldosa podotaktilik.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuek gaineko pasabide bat egin du oinezkoentzat, irisgarritasuna hobetzen duena eta ibilgailuak abiadura murriztera behartzen dituena. Bestalde, plazatik gertuen dagoen espaloia zabaldu da, espaloi-belarri bat sortuz; horrela, gidarien eta oinezkoen arteko ikusgaitasuna hobetu da eta gurutzebidearen segurtasuna areagotu. Esku-hartzea gauzatzeko aurrekontua 20.434 eurokoa izan da.

"Erregezaintza kalean irisgarritasun-zailtasun handiak zituen puntu bat konpondu dugu; gainera, haur-parke baten eta hartutako kalte zerebrala duten pertsonen elkarte baten ondoan dago. Konfigurazio berriak ikuspena hobetzen du, ibilgailuak abiadura murriztera behartzen ditu eta gurutzatzea askoz seguruagoa da orain", amaitu du zinegotziak.